

Argentina: --- Krisian hondoratzen da

1



© REUTERS/CORDON PRESS

1. Argazkia definitzen duten hiru hitz idatzi.

2. Zer uste duzu ari direla eskatzen pertsona horiek?

3. Zer zenekien Argentinari buruz? Idatzi herriaz zenuen iritzia definitzen duten bost hitz.

2. Zergatik dago Argentina krisian?

Argentinako gizartearen ezteandaren arrazoiak asko dira eta konplexuak. Krisi ekonomikoa duela lau urtetik okerrerantz egiten ari da eta egunero jende gehiagori eragiten dio. Egun argentinarren % 44 txirotasunean bizi da (elikagai-saskia hilero 75 euroren baliokide dela kalkulatzen da), eta inoiz baino langabezi gehiago dago. Egoera larri honen arrazoiaren artetik garrantzitsuenak adieraziko ditugu:

Kanpo-zorra

Argentinak kanpoko bankuekin eta nazioarteko erakundeekin duen herri-zorra, egun 130 mila milioi dolarerra igo da. Horrek esan nahi du estatuko aurrekontuaren herena aipatu zorra ordaintzeko zuzentzen dela, eta zorra interesak ordaintzeko mailegu berrien ondorioz etengabe hazten da

NMF politika liberalak

Mailegu berriak lortzeko, Argentinako Gobernuak Nazioarteko Moneta Fondoak ezarritako arau ekonomikoak bete behar ditu. Doitze-politika horiek defizit ekonomikoa murriztu nahi dute (gastu gehiago diru-sarrera baino), gobernuei gastu publikoa murriztera (osasuna eta hezkuntza bezalako oinarritzko zerbitzuetan) eta enpresa publikoak pribatizatzerara behartuz (harremanetakoak, energiakoak, garraiokoak, ...).

4. Bila ezazu informazio gehiago kanpo-zorrari buruz eta gogoeta egizu: Zer da Argentina bezalako herri batentzat hain zordunduta egotea?

5. Nork pairatzen ditu modu zuzenagoan NMFaren politikak? Nork atera dezake etekina politika horietatik?

"Corralito" delakoa eta politikariak

Gizarte-ezteandaren arrazoi zuzenenen artean Gobernuaren azken neurri ekonomikoak ditugu. "Corralito" delakoa astero bakarrik kopuru bat atera dezaketen argentinarren aurrezki eta bankuetan eginiko beste diru gordailu batzuen irudi da. Politikoei trakes-tasuna, ustelkeria eta euren dirua atzerrian izatea leporatzen zaie.



EL PAIS, 27 DE ENERO DE 2002

6. Behatu bineta. Zein da politikoen irtenbide-proposamenenei ematen dien sinesgarritasuna?

3. Lapikoekin protestatzea



Krisi ekonomiko eta sozialak Gabonak baino pixka bat lehenago egin zuen eztanda. "Corralito" delakoak, bankuetatik dirua ateratzea galarazten zuenak, Argentinako eri mailako klasea kalera irtenarazi zuen, langabetu, pentsionista eta familia txiroenekin bat. Joaquín Morales Solá kazetari argentinarrak gizarte-etzanda baino lehenagoko egunetan ikusi zuena kontatzen digu elkarrizketa batean: "Txirotasunari eta lanik ezari buruzko estatistikak irakurtzen jardun dut. Zergatik ez dago sutan herri hau? Hau da neure buruari egiten diodan galdera 1995etik: Zergatik ote eusten dio hainbat gizarte honek. Bost urtean zehar geure buruei galdetzen genien zergatik jendea ez zen kalera irteten. Orain, galdera zera da: etxera noiz bueltatuko den." (El País, 2002ko urtarrilaren 6a)



7. Irakurri eta behatu ondoko titularrak eta irudiak:



© REUTERS/CORDON PRESS

Pesoaren berehalako devaluazioak Argentinan prezioak izugarri igotzen ditu.

EL PAÍS, 2002KO URTARRILAREN 4A.

Argentinan gosea hasten ari da. Lau milioi txirok egunero mehatxu hau jasaten du nekazaritzan eta abelazkuntzan munduko aberatsenetakoa den herri batean. Probintzia txiroenetan eta hiri handietako auzoetan zaila da oinarritzko elikadura-saskia lortzea. Trukea, batez ere arropa eta janari trukea, bizitzeko ezinbesteko irtenbidea da

Gose-mehatxuak lau milioi argentinarraren eramatzen ditu berekin.

EL PAÍS, 2002KO URTARRILAREN 27A.

Argentinako gizarte-etzandak De la Rúa presidenteari kargua uztera behartzen dio.

EL PAÍS, 2001EKO ABENDUAREN 21A.

Moneta Fondoak Duhalderi kredituak onetsi aurretik plan sinesgarriago bat exijitzen dio.

EL PAÍS, 2002KO URTARRILAREN 13A.

Noiz uste duzu amaituko direla herritarren keak Argentinako Gobernu eta nazioarteko erakunde eta enpresen kontra?

8. Kriaren eztearen arazoak bigarrenz irakur itzazu eta komentatu zer aldatu beharko litzatekeen irtenbide bat aurkitzeko.

4. Eta guk, zer egin dezakegu?

9. Gelan eztabaidatu ondoko baieztapenak baliodunak diren:



EL PAIS, 27 DE ENERO DE 2002

- Argentinak ez du bere kanpo-zorra inoiz gehiago ordainduko.
- Hauteskundeak egin beharko lituzkete Argentinan Gobernu berri bat hautatzeko.
- NMFaren politika ekonomiko liberalek krisiarekin amaitzea ahalbidetuko dute.
- Argentinak natur eta giza baliabide nahikoak ditu argentinarrak gosea pairatu behar ez dezaten.



**Intermón
Oxfam**